

LANGUE, LANGAGE, PAROL, NOLA EUSKARAZ?

Bilbo, 1986-VII-19

Alfonso Irigoien

Juan Luis Goikoetxea lagunari
BILBAO

Adiskidea:

Telefonoz elkarren artean izan genduen hizketaldiaren ondorik hurrengo hau idaztera ausartzen natzaizu erdarazko **lengua**, **lenguaje**, **habla**, eta abar, direlakoen bereizkuntza nolatsu egiten den edo egin daitekeen euskaraz gaiari buruz.

Linguistikan F. Saussure-k **parole** erabili zuen **langue** hitzari oposaturik, eta gaztelaniaz **habla** eta **lengua** hartu ziren parekotzat. Jakina, **idioma** ere erabil daiteke kontestu batzuetan **lengua** formaren orde. UZEI-ren hiztegian ez baldin badator ere —ikus **Hizkuntzalaritza hiztegia** /1, Donostia, 1982—, nik neuk, eta ez naiz bakarria, **hizkera** erabili izan dut **habla** edo **parole** formen orde. Haienean, ordea, **hizketa** / **hizkuntza** bikotea biltzen da, ikus **hizketa** hitza, 108 orr., Saussure-n oposizioa markatzeko.

Parole honela difiniturik gelditu zen bereizkuntza horren finkatzailearentzat: “un acte individuel de volonté et d’intelligence”, eta ikusi dugunez, **langue**-ri oposatzen zaio.

Frantsesez, hala ere, **parole** eta **langage** maiz nahasi egiten dira, eta lehenen-
goa ‘*faculté de parler*’ ere izan daiteke.

Euskaraz **hizketa**-ren parean **berbeta** ere badugu. Badira, alabaina, beste zenbait hitz ere non kokatu behar liratekeen ikertzeko: **mintzaira**, **mintzoa**, **elea**, eta baita **hitza** eta **berbea** ere, azkenengo bi hauek frantsesezko **parole** kasurik gehienetan itzultzeko ondo letozkeenak, zeren pertsona bati **hitza** (**etortzea**) edo **berbea** (**etortea**) norbaiti hitz egiteko ahalmena etortzea baita. **Mintzoa** ere parekoa da, beste biak duten eremu semantiko zabalagoan sartzen ez bada ere. **Mintzaira** eta **hizkuntza**-ren artean ez dirudi alde handirik dagoenik ‘fr. *langue*, gazt. *lengua*’, eta UZEI-koek ere sinonimo moduan darabiltzate. Txillardegik, beste alderdi batetik, **mintzamena** ere badakar, ikus “*Mintzamena gizonetik at*” gorago aipatu den hiztegi bere artikulua, 315 orr., eta “*hitz-egiteko ahalmena*” dela dio, eta dirudienez **ikusmen** —ikusteko dugun gaitasuna adierazteko ere autore zaharragoen artean inoiz erabilia— hitzaren erara sorturikoa da.

Hizketa eta **berbete** gehiago dira erdarazko ‘conversación’ delakoaren parean jartzeko, eta izan ere **-(k)eta** delakoak halako akzio kutsua, aspektu iraunkorra, ematen die, ikus **erosketak egitera joan**, ‘ir de compras’, **berriketa ugari**, ‘muchos chismes’, **hizketan ari dira**, ‘están conversando’.

Elea, beste alderdi batetik, **hitza**, **berbea** eta **mintzoa** direlakoek ez duten zentzuz ere ager daiteke, ipuin antzeko zerbait adierazirik.

Hizkera, itxura guztien arauera, hitz egiteko moduari dagokio, **jazkera** hitzean gertatzen den antzera, eta, beste alde batetik, **-(k)era** berrekailua moduari ez dagokionean egintza hutsari lotzen zaio. Zentzu biak bata bestearen osagarri izanik ondo letorke erdarazko ‘las hablas locales’ eta horrelakoak itzultzeko: **tokian tokiko hizkerak**, edo **persona baten hizkera**, ‘(el) habla de una persona’. **Berbakera** ere oso osoan zentzu horretakoa da.

Alabaina, erdarazko **habla**, ‘facultad de hablar’, adierazteko **hitza**, **berbea**, **mintzoa**, erabil daitezke, baina Saussure-n zentzuan baita **hizkera** ere, eta azkenengo honek, gainera, goian aipatu den zabalagoa ere izango luke.

Agian gaztelaniazko **lenguaje** adierazteko **mintzaie** erabil liteke, edo **mintzaraie**, ikus Azkue-ren hiztegia. Edozein modutan ere ez dirudi euskaraz halako bereizkuntzarik tradizioan zehar egiten autoreak saiatu direnik, hitz bakoitzak berez duen ñabarduraz kanpo. UZEI-koek ez dute argitasun gehiegirik ematen honezaz, baina gorago ikusi dugun Txillardegiren **mintzamen** hitza hemen ere koka liteke. Beste alde batetik Fr. Bartolome-k **berbakune** darabil, ikus Azkue-ren hiztegia, eta izan ere horretarako egoki da.

Azkenengo honen bide beretik batzuetan Bizkai aldean **berba**-ren ondorengo batek edo bestek zentzu berezia hartzen du, hala nola, **berbaro**, **berbaldun**, **berbaleku**, **berbatu...**, gainerako euskaldunen artean entzun ohi ez baita ez ***hitzaro**, ez ***hitzaldun**, ez ***hizleku**, ez ***hiztu**, zimendutzat **hitz** harturik, ezta ***mintzaro** eta ***mintzaldun** ere **mintzo** harturik, eta hemen **mintzatu** eta **mintzaleku** beste esan nahi batekoak dira, hau da, **berbaleku** eta **mintzaleku** alde batetik, eta **berbatu** eta **mintzatu** bestetik, zentzuari dagozkiola ez dira berdinak. Halako ñabardura berezia hartzen duten Bizkaiko hitzok ondo letozke euskara baturako ere, heda balitez.

Besterik gabe, bihotzez.